

# EUSKARAREN SENTSIBILIZAZIORAKO PILULA



- **01 EUSKAL HITZAK OTE?**
- **02 BALIABIDE BAT**
- **03 'GUAU' PLATAFORMA**

# JATORRIZKO HITZAK OTE?



01

Euskarak, gaztelaniatik ez ezik, beste hizkuntzetatik hainbat mailegu jaso ditu, tartean, arabieratik. Ondorengo hitzetatik, zein esango zenuke dela mailegua? Eta zein euskarak berezko duena?

- ALKATE
- ALKONDARA
- ALKIMIA
- GUTUNA
- ALBISTE
- ALGARA

*“Mitxelenak iradoki zuen KUTUNA eta GUTUNA euskarak zuzenean hartutako arabismoak izan litezkeela. Euskal Herrian bizi izan ziren, gure artean eta gure aldamenean, urte pila batez, beraz, **suposatu behar dugu orduko euskaldunek arabiera nahiko entzuten zutela**” (Blanca Urgell, Berrian).*

# BALIABIDE BAT



02

## EUSKARA- ARABIERA HIZTEGIA

The screenshot shows the Glosbe dictionary website. At the top center is the Glosbe logo, which consists of a colorful bird-like icon and the text 'Glosbe' and 'Diccionario'. Below the logo are two dropdown menus for language selection: 'vasco' on the left and 'árabe' on the right, with a double-headed arrow between them. Below these is a large search bar containing the text 'Traducir de vasco a árabe'. To the right of the search bar are icons for a keyboard and a search magnifying glass. The background of the interface features a faint world map composed of dots.



# 'GUAU' PLATAFORMA

EITBren **audio unibertso osoa** eta euskal komunitatearen audio eta **podcast produkzioak** jaso dituzte GUAU plataforman.

EITBren sei irrati emisorak (Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Gaztea, EITB Musika eta Euskal Kantak) zuzenean entzuteko aukera emango dugu, eta 100 irratsaiotik gora, nahieran. Hasteko, 150 podcast baino gehiago eta 18 bideopodcast bildu dituzte.

